

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako toponimia ofizialaren erabilera eta adierazpen grafikoari buruzko foru-dekretua onartu du Gobernuak

Nafarroako Kontseiluak irizpena eman ondoren egokitu da, eta haren helburua da irizpideak bateratzea eta nazioarteko estandarretara egokitzea

Asteazkena, 2018.eko otsailak 28

Nafarroako Gobernuak gaur onartu duen [foru-dekretuan](#), [Foru Komunitateko herriguneeen izendapenak erabiltzeko eta grafikoki adierazteko irizpideak ezartzen dira, eta haren helburua da irizpideak bateratzea eta nazioarteko estandarretara egokitzea.](#)

Zehazki, haren xedea da Euskararen Foru Legea aplikatuz onartu diren gaztelaniazko eta euskarazko izendapen ofizialak bateratzea eta arautzea, bai eta haiek idaztean erabiltzen diren zeinuak behar bezala erabiltzen direla bermatzea ere.

Hala, toponimia ofizialaren erabilera arautuko duten zenbait irizpide finkatzen dira, edozein pertsonak edo administrazio publikok modu bateratuan erabil ditzan. Zehazki, estatuko eta nazioarteko gidalerroek finkatzen dituzten irizpideak aplikatzen dira.

Dekretu-proiektua jendaurrean jarri zen, eta baliozkotu egin zuten Toki Araubidearen Foru Batzordeak eta Euskararen Nafar Kontseiluak. Ondoren, Nafarroako Kontseiluari bidali zitzaion, hari buruzko irizpena eman zezan. Irizpena eman ondoren—irizpenak dekretu osoa baliozkotzen zuen, xedapen gehigarri bat izan ezik—, Gobernuak aintzat hartu du kontsulta-organoaren proposamena, eta behin betiko onartu du.